

Ordizian, 2016ko maiatzaren 9an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras  
Mila Sukia Galparsoro  
Iñaki Dubreuil Churruca

EAJ/PNV  
Ordizia Orain  
PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Igor Eguren Izagirre

Ordiziako EH Bildu- Ezin dela etorri adierazi du.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

AZTERTUTAKO GAIAK

- 1.- 2016ko apirilaren 25eko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Kale hezitzaileen Esku-hartze zerbitzua.
- 4.- Txostenak eta hainbat eskari.
  - 6.000 €tik beherako fakturak.
  - 2016ko aurrekontua.
  - Sasietako edukiontzia.
  - Garbiguneko partaidetza programa.

GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIAK:

- .- Berdin Sarea
- .- Elikagai bankua.
- .- Hutsik dauden bi udaltzain lanpostu betetzea.
- .- Organo Erabakitzaileetako Administraria bere lanpostura itzultzea.



## ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:30



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

### 1.- 2016ko apirilaren 25eko batzordeko akta onartzea.

#### Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko apirilaren 25eko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

### 2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 20. zerrendaren berri eman da.  
Kopurua guztira: 32.649,94

.- 24 zenbakidun zerrendaren berri eman da.  
Kopurua guztira: 20.460,82

Aldeko irizpena jaso dute.



### 3.- Kale hezitzaileen Esku-hartze zerbitzua.

#### Dubreuil jn.

Zerbitzuak mahai gainean jarritako arazoa azaldu du. Atxikitako langileei hitzarmen kolektiboa aplikatzea onartu eta gero, enpresa esleipendunak urtean 6.000.-€-ko igoera proposatzen du edo bestela zerbitzuari eskaintzen dioten ordu-kopurua jaistea.



Dubreuil jaunak uste du zerbitzuaren ordu-kopurua mantentzea komeni dela (lehen jaitsi egin ziren) eta horrek dakarrena, hau da, 6.000.-€ gehiago ordaintzea. Etorkizunera begira gaia aztertuko da eta Gizarte Ongizateko Plan Estrategiko bat egingo da zerbitzua nola eman behar den ikusteko.

Sukia and.

LORRATZekin sinatutako kontratuaren kopia bat nahi du.



4.- Txostenak eta hainbat eskari

.- 6000.-€tik beherako fakturak.

19 eta 23. zenbakidun faktura-zerrenden berri eman da.

Jakinaren gainean.

.....

.- 2016ko aurrekontua.

Eguren jaunak ezin izan du bilerara etorri, beraz, gaia zintzilik geratzen da, kide guztiak bertan izan arte.

.....

.- Garbiguneko partaidetza programa.

Alkate jn.

Jakinarazi du Legearen araberrako programa parte-hartzaile bat egin behar dela Garbiguneko AASSetako plan barruko alaketaren agiria onartzeko.

Burutzen ari direla adierazi du eta ez du zentzu handiegirik, baina Sasietarekin adostu da programa parte-hartzaile bat egitea hileroko argitaratzen den eta buzoietan banatzen den udal buletinean eta webgunean informazio sinplea jarrita.

.....



.- Sasietako edukiontziak

Alkate jn.

Udalera zuzendutako Sasietaren idatziari buruzko informazioa eman du, bertan ondorengoa proposatzen da: Udalaren kontura izatea hondakinen bilketa sistema berriarekin beharrezkoak diren edukiontzien gastua, hau da, edukiontzi berriak ipintzea. Gastua 133.721,56 €koa da.

*Gaia Sasietarekin aztertuko da.*



4.- Galderak eta eskaerak

.- Berdin Sarea

Hitzarmenera atxikitzea egokitzen da. Hitzarmena sinatzea.

.....

.-Elikagaien bankua

Dubreuil jaunak adierazi du Elikagaien Bankuan lan egiten duten elkarte eta erakundeen ahalegina bateratu nahi izan duela Ongizate Sailak.

Caritasek hortik atera nahi izan du.

Gurutze Gorria arduratuko da elikagaiak hilean behin banatzeaz, eta beti lokalean egingo du. Ahaleginak biderkatu beharrean, sinplifikatzea da xedea.

Gizarte Ongizate sailari lana murriztuko lioke horrek.

Banaketa sarriago egingo da (hilean behin) eta kopuru txikiagoekin, baina agian hobeia izan daiteke.

.....

.- Alkate jn.

Bi udaltzain lanpostu betetzeko burutu den hautaketa prozesuan bete diren bi lanpostuei buruzko informazioa eman du. Arkautera formazioa jasotzera doan horietako bat ordezkatu behar da eta orain arte Ibai Olazabalek betetzen zuen "aldi baterako programaren" bitartekotasuna ordezkatu behar da.



Udalak berak dituen lan-poltsen eta 2015eko ekainaren 1ean sinatu zen Hitzarmenaren bitartez atxikita dugun Arkatueko bitartekoen poltsaren artean dauden arazoei buruzko informazioa eman du.

.....

Alkate jn.

Organo Erabakitzaileetako administraria bere lanpostura itzuli dela jakinarazi du.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

